



JOSE MARIA ARREGI

HERRI GIZONA

Hombre del pueblo



Mungiako Udala
Martín Olazar

JOSE MARIA ARREGI

Herri gizona

© Mungiako Udalak argitaratua 2001

Egilea: Martin Olazar

Maketazioa: E.Iriondo

Lege gordailua: BI-1518-01

Inprimategia: Graficas Mungia

EZ DAUKAGU AIZTUTA



Mungiarrak ez daukagu aztuta Arregi eta Abarrategitar Jose Maria abadea: dato-rren otsailean beteko dira berogeta amar urte parroquia onetara eterri zala. Morcillo ta Gonzaleztar Kasimiro Gotzainak Mungiarako izendatu ebanean, lan arlo au ezarri eutsan: "Parrokiko abade laguntzaile eta bigarren organulari". Izendapen onetan zerikusi andia izan eban meñakarra zan Aurtenetxe ta Goitiatar Frantzisko Gotzaindegiko idazkariak. Au pozik agertzen zan Gasteizko Abadegaien Etxean izendapen au egin zanean. Mungiarentzat oso ona izango zala uste eban eta orrelan esan egin euskun.

Zer egin bear ete eban emen gure Jose Mari abadeak? Parrokiko ekintza eragileak bizkortu, batez be orduan ain indartsu egoan Katoliku-Ekintzaren bidetik.

Izan be, Jose Mari benetan ekintzailea zan. Bere urrutizkin edo telefonoak lan asko egiten eban, aria gorritu arte: Baten dei egin eta etorten ez zanari laster egingo eutson bigarren edo irugarren deia. Orregaitik batzuk "txapa" ezizena ipiñi eutsoen, txapea emoten ona zalako. Egia esan, gauzak ez dira lortzen ekin orregaz nagikeriari geiago egin barik.

Ez uste izan Jose Mari burrukalaria zanik. Ez. Ekintzailea bai baina ez burrukalaria. Iztitu edo "konflikto"ai bildurra eutsen. Ekintza larrieta beti atzetxutik ibili izan da. Naiago eban apur bat burua makurtu, eskubideak zaindu baino. Ekintza eragileetan, ostera, beti aurretik.

Omenaldi asko egin jakoz Mungian Jose Mariri: abeslariena, sukalkiarena, pelotariena, parrokiak eta Udalak alkar lagunduta egin jakona, Laukarizko Landa-Etxeen jatetxeen bazkaria Meza Nagusiaren ostean eginda. Olako omenaldietan pergami-noak, zidarki idatzia eta emoitzak ugari egin jakozan.

Gaur Jose Mari Alzaimer-giroko gasoak iota daukagu Portugaleteko *Aspaldiko* egoitzean: ibiltea neketsu, burua naikoa laban, berba egiteko erreztasun larregirik ez. Orregaitik, omen lez, parrokiko Lagunza Gaisoen taldeak eta bere lankideak eta adiskideak, Udal-Batzagaz batera, liburutxu au berari eskaintza erabagi dogu eta era-bagi au biotz beroz eta esker onez eskaintzen dautsagu.

URTEAK JOAN URTEAK ETORRI

Gure Jose Mari Arregi Abarrategi Elorrioko San Agustinen jaio zan 1915-05-17an eta gazte zala itzi eban San Agustin, uriaren barruko kalera bizi izaten joateko.

Txikitán Elorrioko parrokián eleizmutil edo monagilo ta ume abeslaria izan zan eta gogoan dauko berak, eskolea itzita, eleizara joaten zala ileta egunetan. Orduan beti izaten izaten ziran iletak goizez, mezan laguntzaile edo abeslari izateko. Gero iletako bazkarian kideko izaten ziran eta umeak izan arren, nagusiak lez euren akeita, txolea ta txokorra, (kafea, kopea ta purua) artzen ebezan.



Jose Mariaren familiaren baserria

erosi eutsan ta txikitatik bialtzen eban Abadinora musika ikastera. Jose Marik beronek esana da inoz Elorriotik Abadinora bizikletan eta purua erreten, joaten zala, musika-ikastaldia egitera.

1927.urte inguruan gure Jose Mari amabi urte ingurukoa zala, Seminarioa joan zan eta urte batzutan beintzat *fomulo* lana egin eban bere ikasketak ordaintzen laguntzeko.

Seminarioan Mungiakoa zan lagun andi bat egin eban. Mariñerueneko Jose Luis Torrontegi. Lagun onek Seminariotik urten-bearra izan eban, bere abertzalesuna agertu ebalako bialdu egin eben-eta, baina biak izan dira adiskide andiak Jose Luisen eriotzara arte.

Ogeita bat urte ingurukoa zala, gudara joan bearizan eban. Ez eban inoz armarik artu baina urrutizkinean edo "servicio de retransmisiones"en egin eban bere ekitaldia, beste abadegai askok lez.

Andik etorri ziranean, guda osteko giro gogor aretan, Bergaran artu ebazan Rufino Aldabalde abade onak, besoak zabalik eta gudako zauriak osatzeko prest.

Nik Gazteizen ezagutu neban Jose Mari 1941. urtea ezkerro. Oso ezaguna gen-



Jose Mariaren gurasoak



Jose Maria abadetxean

duan, batez organularia zalako. Gainera ikasteko materialak saltzen egiten eban lan, liburuak eta abar. Beronek bideratzen ebazan prokuraduriko kontuak be. Ezaguna genduan, ba, eta apur bat "despistaua" zala-ko entzutea geunkan. Dana dala, guk ezin gauzek zeatz jakin askoz gazteagoak ginalako.

1945-07-01 ean egin zan abade. Egun pozgarria Jose Marirentzat eta beronen etxe koentzat. Egun orretan bete ziran bere ametsik andienak eta eldu zan bizitzako elburu batera: abadea zan.

Abadetza artu ondoren laster etorten da abade gaztearen burura itaun au: Nora bialduko ete nabe? Orrelan egoan Jose Mari be, baina ez luzaro. Laster artu eban Gotzainaren eskutitza, pozez eta ametsez beterik joan zan Berangora.

Zazpi urte egin ebazan Berangon eta erria pozik egoan beragaz, bera be bai erriagaz. Sarritan joaten zan mezea etxe an esateko Ikaza markesaren etxera be.

Baina ni abade izateko ateetan nengoala albiste au entzun neban Meñakarra zan Aurtenetxetar Franziskoren agotik Gasteizko seminarioan: Mungiara Jose Mari Arregi utorrela abade. Pozik entzun gendun albiste ori, abade ona zala bagene kialako.

Eta ori bete be egin zan: 1952ko otsailean izendatu eben Jose Mari: "Mungiako Abade Laguntzaile izatea zan bere zeregina, baina baeukan goitik laguntza bereizi- ren bat. Dana dala, parrokian, orduan ain gauza andia zan "Katoliku Ekintza" edo "Accion Catolica" Ven ardurea artu eban, eta Artzipreste-mailan katekesiarena.

Emen ebagiten dogu bizitza-edesti au, Mungiako bere bizitza urrengo ataletan azaldu bear dogulako.

II. KATOUKU-EKINTZAN

Jose Maria Arregi abadeak Mungiara ekarri eban ardurarik aundiena Katoliku-Ekintzan lan egitea izan zan, eta lan orregaz batera joango ziran beste abade-lanak eta organularitza. Eta Katoliku-Ekintza orren barruan, gazteak ziran lanik beinena.

Baina zer zan Katoliku-Ekintza izen ederra daroan lan ori?

Katoliku-Ekintzak indar aundia eukan Eleiza osoan urte areetan eta Aita Santua

bera ta Gotzain guztiak ziran bultzagile. Lau arlo edo abar nagusi eukazan: gizonena, andreena neskena ta mutilena.

Elburu nagusia laikoak ebanjelizatze-lanera sartzea zan, elburu ederra benetan, eta gotzainak oker jokatu ez baeben gaur arte frutu ugaria emongo ebana. Zoritzarrez ez zan orrelan izan, atal onen azkenean esango dogun lez.

Jose Mariaren lenengo meza eguna bere familiagaz.

Soldaduzkatik etorritako anaia dauka ondoan.

Arlo bi izan ziran, batez be, gure artean indarra artu

ebenak: Langileen arloa edo JOC/HOAC eta baserritarrena, Erri-Gaztedi.

Jakina da Frankoren aldi gogor areetan oso gauza gatxa zala erakundeak sortzea. "Principios del Movimiento" zin eginda onartu bear ziran eta arduradunak aukeratze-ko "Certificado de Penales" eta jokabide onaren baiezpena lortu. Eta ori Frankotar ziurren baino ez jaken emoten.

Zorionez, Eleizeak eukan orretan eskubide geiago: Erriko elburu orreik lortu eikezan Katoliku-Ekintzaren barruan lan egin ezkerro. Orregaitik errian zerbait eratu nai ebenak Eleizara etorten ziran babes bila. Orra or gure Jose Marirentzat lan egiteko aukerea.

Baina Eleizan be sarritan sortzen ziran iztiluak eta eragozpenak. Izan ebazan Jose Marik be olakoak, baina beti izten eban dana laikoen eskuetan eta oneek izaten ziran aurrean erabiliak. Beste leku baten azalduko dogu Eleiza barruan organulariak izan ebana.



Zelan emon eban Jose
Marik babes ori?

Biotz-biotzez eta gogo
osoz. Bai errian eta bai
Eleizan lan egiteko aukerea
ortxe aurkitu eban eta bera
ekintzailea zan lez, ez eban
aukera eder ori galdu, gero-
ago agertuko dan lez.

Gauza bi batez be egin
bear ebazan Katoliku-
Ekintzaren barruan Jose
Marik: ardurak artu eta ardu-
rak laikoi banatu, baina
ardurak artzeko laikoak ger-
tatu egin bear ziran eta orre-
tarako eratzen ziran ikaske-
ta-batzarrak edo "Circulos
de Estudios". Asko izan ziran
or gertatu ziran laikoak.
Gaur emen dabiltz, gure
artean erri-lanean.

Katoliku-Ekintza au bizi-
bizi sartu zan, urteen joanean,
diktaduraren aurka eta
orduan gotzainak jokabide gogor orren alde egozan lez, Katoliku-Ekintza zelan edo
alan alboratu egin eben, kendu esango neuke nik. Ekintza oker ori bizi agertu jakun
Erri-Gaztediren lana baserriean egiteko ekintzan. Azkenean Gurpide Gotzainak lortu
eban kentzea.



*Aitoribiol dutoko orgozkio. Atzeko oldeon "Zure semio"
douko idotzito.*

III. KATEKESIA

Eleizan, eta gure parrokieta, beti izan da zeregin eta ardura andi bat umeen katekesia, ez ainbeste elduena. Eta elduen katekesia bear-bearrekoa da: ume-denboran artu zan kristinu-osokuntza ez da naikoa elduak daukezan arazoai ebanjelioak emoten dauan erantzuna emoten laguntzeko. Orregaitik askorentzat lenengo jaunartzea,

zori txarrez, azkenengoa izaten da. Arazo andi au bideratzen alegintzen da gaur Eleizea, baina ez da erreza erantzun ona aurkitzea.

Jose Mariren denboran abadeak ziran katekesia emoten ebenak, katekesia baino geiago "dotrinea" esango geunkio orduan esaten jakon lez. Katekista on bat Teresa Biguri irakaslea zan, baina lanik geiena abadeak egiten eben arlo onetan.

Jose Mari ez zan parrokian katekesiko arduradun, beronek, gazteakaz egiten eban lan eta lana abadeen artean banatu egin bear zan.

Baina katekesi-arloan be zeregin andi bateukan: ingurueta parrokieta katekesia alkartzea eta Gotzaindegian egiten ziran batzarretara geure izenean joatea. Ondo beteten eban lan ori.



Aitoribialdutako argazkia. Atzeko aldean "Zure semia" dauka idatzita.

Inoz bere ordez joan nintzan Gotzaindegiko batzarrera eta an aurkitu neban giroa oso txarra zan. Ez zan ezer egiten kritika txar tatzuk baino. Bide orretatik sartu nintzan A.S.C.E.A. kalekesi-taldera eta emen bai, emen lan ederra egiten zan, batez be ikas-liburuak argitaratzen eta katekesiak bideak eskaintzen.

Jose Marigaz ondo alkartuta, Mungialdean katekesi sariketak eratu genduzan: em' guztietan egiten zan ikasturtearen azkenean azterketa eta an agertzen ziran onenak, Mungiakoakaz batera, sariketa egiten eben. Neskarik jakintsuena "Emperatriz" izendatzen zan eta mutilik jakintsuena "Emperador".

Gero jai andi bat eratzen zan Mungian. Gotzaina ekarteko alegina egiten gendun eta onek ezin baeban, gitxienez, gorriz jazteko eskubidea eukan abade bat ekarten zan jairako. Erri guztietatik ekarten ziran umeak, kamioetan eta al zan moduan.

Orrelan egiten ziran katekesi egunak, sarketak bai beintzat, Bizkai guztian eta geu joaten gintzan lekurik geienetara azterketak egiten. Gure katekesia Bizkaian punterengotzat egpan.

Baita 1965. urte-inguruan larri-unea sortu zan: Kristinau izatea edo "doktrinea" jakitea eta gainera umeak norgeigora sartzea ez dala gauza egokia uste eben abade batzuk. Azkenean dana zala norgeiagoa ta arrokeria, esaten eben.

Abadeen artean iztilu edo konflikto ikaragarria sortu zan. Beste atal baten azalduko da au.

Arlo onetan Jose Mari isilik egoten zan, beti lez iztiluetan, "atzetxuan", naiz eta bera zan inguru onetan misioen arduradun.



IV. ABADEEN ARTEAN ABADE

Jose Mari Mungialdeko abadeen artera eterri zanean, ondo artua izan zan. Orduan geienak abade elduak eta emen urte asko eroienak ziran eta ez egoan euren artean eztabaida andirik. Giro ona abade eterri barriarentzat. Bainaz urteen joanean emengo abade batzuk kanpora joan eta abade barriak eterri ziran gure artera: Fikara, Gam izera, Frunizera, Gatikara eta Laukarizera. Asieran ez zan egon eztabайдarik, baina laster agertu zan gazteen eta zarren arteko alkar-ulertu ezina, iztil ua. Giro barri au ez zan Jose Marientzat atseggingarria. Isilik geratu zan.

Ilean bein egiten gendun geure batzarra gaur Zarren egoitz barria egiten diarduen lekuaren egoan "Juana de Castilla" etxean. 1965. urte inguruau asiziran goraberak. Gazte eterri barriak eta elduak ziran batzuk gure batzarrak eta otoitz-eguna euskeraz egitea eskatzen eben, elduak, ostera, artziprestea aurrenengo zala, erderaz gura eben eta orretarako euren aginpidea ipinten eben azken-oinarri lez.

Oridorena taldea zati bi egitea izan zan, batzuk egiten eben euren batzarra euskeraz eta besteak erderaz. Otoitz-aldia egiteko zuzendari bi ekarten ziran eta banan egin. Etorri zan zuzendari batek, ez egoala otoitzerako girorik eta, trena artuta iges egin eben.

Dana dala, bazkal-tzeko orduan mai baten inguruau batzen gin-tzazan guztiok eta antxe agertzen zan gogorren iztilu edo konfliktoa eta berbazko irainak be bai inoz.

Gure Jose Mari talde bien artean ikusten gendun, baina isilik beti.

Zelan amaitu ete zan giro ori? Abade batzuk emendik urten egin bear izan eben eta geratu ziranak, batzarrak egiteko, Txori-errira joaten asi ziran.

Arrezkero, ainbeste urtetan, bere abadeak aldatu barik eukiten ebazan Mungia aldakuntza-aldieta sartu zan eta urte gitxitan ainbat abade barri ezagutu ebazan, baina Jose Mari'k beti jarraitu eben bere lekuaren. Olako bitarteren baten parroko-ordea be izan zan.

Giro txar au Europa guztian aurkitzen zan aldi arretan, Batikanoko II Batzar nagusia amaitu eta 1970. urteran bitartean geiena. 1968. urtean izan zan Parisen iraultza andia. Giro ori agertu zan emen be eta Jose Mariak bere aurretik igaroten ikusi eben. Bitartean berak len lankide izan ebazan "landarai" ura botaten eutsen.

El 23 de febrero - 65 nos reunimos los componentes de la pretendida S.C.R. Danone con representantes de Euzkadiarrun y Guri-zer, en primer contacto, con vista a celebrar el II Concurso de Sakalki el proximo 8 de Agosto.

A primoros de este año 65 se dio el incidente de la suspensión de la obra de "Abeltegia" en Mungia (alcalde, Gambo) Después llegó la denegación para crear "Danone" (en Febres). En Mayo se produjo la represión al Eri-Gaztedi de As-Catolicos en Gatazka.

A la vista de tanto acontecimiento reciente: puesto que se propuso suspender toda actividad en el año porque la hostilidad del Ayuntamiento era manifiesta.

Por todo ello, fué a petición de las Sociedades apuntadas, que deseaban celebrar la fiesta, que nos reunimos este 23-7-65

(El Ayuntamiento exigió responsabilidad a las Sociedades por todo "manif. subversiva" que pudiere producirse. Prosternon los Presidentes y lo arrojó el Ayunt. Prohibió este la entrada con Kukux (aqueí el dicho del Alcalde : "Dentro de un Kukux hay un nacionalista y no queremos verlo en el arbolado".)

V. ETXE -BIZITZEA

Abadeak euren etxe-bizi-tza eratzeko eragozpen bereiziak daukez. Abade bat badar parroki batera eta geienetan ez dauko etxerik bizi izateko eta ez laguntzailerik bere inguruko bear-izanak bideratzeko. Bakarrik dator.



Mungiako abade etxea



Mungiako abade etxea erre ostean

Orrelantxe etorri zan Jose Mari Berangotik Mungiara eta etorri ta laster Solozabaldar Paulinen etxera urreratu zan beragaz batera etxearen bizi izateko eskatuz. Paulinek baietza emon eutsonean, berak erantzun eutson: Ikusiko dozu ze ondo biziko garan!

Barrogeta amar urte eroan dabez alkarragaz bizi izaten Jose Mari'k eta Paulin'ek, baina emen be edestia, istoria, dago.

Abade-etxe zarrean Paulin ienengo etxe-mailan, ezkerrean bizi zan, bere arrebeagaz eta antxe Jose Mari be etorri zanetik. Gero beste arreba bat ekarri bear izan eban Paulinek, eta

loba bat be bai, eta guztiak antxe bizilekuaren bizi ziran, nasaitasun audi barik, estu-estu. Gero, bizileku orri kendua zan alboko bizilekuaren gela bat eskuratu eben, eta nasaitxuago. Dana dala, Jose Marik goian eukan bere bizileku.

Baketsu eta ondo bizi ziran, naiz eta Jose Mari beti etorri ez maira ordurako, zergin asko eukalako, eta arreba onak itxaron egin bear izaten eban.

Baina 1987. urte inguruan abade-etxe zar eta andia erre egin zan, teilatutik sua artuta. Estualdia makala abade guztientzat eta inguruko-erritarrentzat!.

Beste bizileku batera joan bear izan eben biak. Miren Arrolak emon eutsen bizileku au eta antxe bizi izan ziran biak. Ordurako Paulin bakarrik egoan, etxe-koak barik.

1988. urtean amaitu zan Abade etxe barria eta ile batzuk barru elorri ziran elxe onetara bizi izatera Jose Mari ta Paulin. Jose Marik artu eban lenengo etxe-mailan leku bat eta Paulin laugarren elxe-mailara sartu zan bizi izateko.

Mungiako beste abadeak be etxe onetan bizi gintzazan, Lurraldeko Ordezkaria zan Antonio Linazagaz batera zazpi abade ginan. Guziok mai baten jaten gendun eta etxe lanak egiteko 12 eta sukaldari lez Pili Agirre artu gendun. Urteak igaro ziran egoera egoki onetan.

1998. urte inguruan igarri geuntson Jose Mariri, gaisoren batek ikututa egoala, batez be ezagumena ta gomutamena urritzen joakozelako. Bera baebilan emengo osagileakaz. Bainan udako egun bero baten Jose Mariri esan neu-tsau: Jose Mari! Sukal-daria oporraldira joan da eta bazkariak jatetxeen egingo doguz, baina apaltzeeko sagar erreak gertatuko dautsudaz, badakit zalea zareana-ta.

Berak esan eustan:

—Zer da sagar errean?

—Baina, Jose Mari! Ez dakizula zer dan sagar errean? Egunero jan dozuz eta!

—Nik ez dot sekula jan sagar errerik.

Neure artean esan neban : emen gaisoa aurrera doa.

Urte bat inguru igaro zanean, arazo aundiagoak agertu ziran, batez be garbiku-zi-arloan eta eskutitza egin neutsan Ana Mari bere lobeari eta Jose Mari egoitz batera eroan bear litzakela esan neutsen, priesa barik, baina eroan.

Ana Marik eta onen senideak ondo artu eben proposamen au eta ainbat lasterren eroan oba, esan eben.

Begoñan dan Abade Beneragarrien etxera sartu zan, Ana Marik eta senideak ondo lagunduta eta an egin ebazan ile batzuk, baina etxe ori be ez egoan gertatuta olako gaisoak artzeko eta Jose Marik urten egin nai izaten eban eta ezin. Azkenean Portugaleteko Aspaldiko etxera sartzea eskatu eta lortu gendun Eleizbarrutiko Bikarioak daukan onetarako taldeak lagunduta. Eta antxe dago orain, pausua labur eta burua laban dauzala.

Arlo au amaitzeako
esan bekit txalogarria
izan dala Paulinek eta
Jose Marik bizi izan
daben alkar-bizitza,
eroaren aundiagaz eta
alkar-laguntza zintzoa-
gaz, anai bi balitzakez
lez.



Jose Maria egindako omenaldi batean

VI. "DANONTZAT" ZARREN ALKARTEA

Mungian zar sarituak edo pentsiodunak bear-izan larrian aurkitzen ziran. Etxe barruan sartuta egun guztian? Benetan bizitza iluna! Tabemarik tabema ibili? Bizimodu kahegarria! Kalerik kale ta bakarrik? Txakur alboratuen antza emoten eban orrek! Urtenbidea, alkarte bat sortzea zan, baina aldi arretan obko alkarteak sor-tzea oso gauza gatxa zan. Len esan dogun lez, alkarte ori eleiz-giroan sortzea zan errezagp eta bide au artu eben erritar batzuk eta Jose Marigana urreratu ziran.

Oso ondo artuak izan ziran eta alkarteak sortzeko bideak artzen asi be bai.

Ez dakit zein urtetan izan zan ori, baina, nire ustez, 1975. urte inguruan izan zan. Toki bat bear zan orretarako eta lenengo tokia or BBK dagpan inguruan izan zan.

Alkarte oneri "Danonlzat" izena ipini eutsoen eta jaio ta laster izan eban Udal-Batzaren lagunlza. Onek Aita Ebrriaga kalean emon eutsen tokia, Maixuen etxearen, gaurGizarte-Laguntza dagoan tokian bertan. Nik antxe ezagutu nebazan lenengoz zar sardunak alkartuta.

Batzar-agiriak 1983.urtean asten dira. Urte batzuk igaroondoren, Zarren egipitzaren lurretan gaur dauken loki zabala ta ederra lortu eben. Laster, egiten diarduen Zarren Egoitza izangp dan etxearen barruan izangp dabe egipitz bam'a ta ederra, egipzetzik eta egunezko laguntzaren tokitik aparte.

Alkarte onek indar aundia artu dau Mungian. Gaur 1.062 bazkide tik gpra dira.

Irakurleak, alkarte onek zer egiten dauan jakin nai izangp dau.

Lenengo ta bein antxe dauke zar sardunak, gpiz eta arratsalde eurak alkartuta egoteko leku egokia, baita jokorako naiz alkarizketarako, aurrean mai edo mostrador bat daukeb. Baina ori egunero ko bizitza gpzotzeko ona izan arren, badaukez beste ekintza onuragarri batzuk be. Esaterako, aurten esku-lanen ikastaroa, gomutamena bizkortzekoa, xake jokoarena, informatikarena, istripuetan lenengo laguntzak emotekoa, eta euroari buruzkoa. Gainera aurten urteera oneek egingo dabez: Portugaleteko zubi eskegira, Errioxara, Gasteizera, Saloura, Urkiobra, Kantabriara ta Benidormera. Ilean lautan dabe dantzaldia, urtean bein ospatzen dabe jubilatuenguna eta jaietan alkarteko bazkaria, 500 inguru maian batula. Zabntza barik, zarrentzat eta erriarentzat, eta batez be DJose Mariarentzat pozbide andia da au.



Zarren egoitza inauguratu zan eguna

VII. "DANONA" PELOTAZALE-TALDEA



Onen ontzoko idozki bat egiteko eragozpen audi bat agertzen jaku: agiriak ez dirala aurkitzen errez. Sarritan esan dogu diktaduraren aldian alkarteak sortzea oso gatxa zala eta orregaitik urreratzen zirala erritarrak Eleizara eta gure kasuan D. Jose Mariaqana. Baino inoz ez dogu agertu agiririk ori ziurtatzeko.

Oraingo arlo onetan badaukagu zerbait, naizta ez gauzea ziurtatzeko beste. Emen agiri bi daukaguz aurrean.

Antza dagoanez Altuna ta Erzillatar Luisek eskaria egin eban Madrideko Gobernatze-Sailera "Danona Jolas eta Jakintza taldea" sortzeko. Ontzat artzekoa da Eleizara etorri baino lenago eskari au egitea, erri-eskubide bat zaindu bear zalako. Eta neuk uste dot izen ori ipinteko be Jose Mari parte izango zala eta geiago legelari ona zan Izagirretar Jose.

Ez daukagu eskari ori esku artean, baina bai andik artutako erantzuna: Gobernatzerako Ministerioak 1965. urteko otsailaren 9an ezetza emoten dautso.

Ezetz orri Altunak gora-deia edo errekursoa egin eutson, berba naikoa gogo-rakaz egin be: Zuzentasunak eskatzen dauen gauzea da baietza emotea, erri onetan gazteak deslai eta droga-arriskuan dagozelako, Mungia erri andia eginda dagoalako eta abar.

Gora-dei onek erantzuna artuko eban, baina ez daukagu esku artean agiria. Dakiguna da, alkarte au sortzeko Eleizearen babesu artu bear izan ebela eta orra or barriro D.Jose Mariagana urreratzea.

Gure Jose Marik ondo artu eban eskari au eta gogo osoz alegindu zan Altunaren taldeagaz alkarte au sortzen. Ortik sortua dala uste dot "Danok bat Pelota-zale taldea".

Taldearen eta Jose Mariren artean beti izan dira artu-emon onak. Ona emen ezau-garri batzuk: beti izan dau joko-aldietara sarrera ordaindu barik, sarritan egoten izan da batzarretan eta osteko jatorduetan, omenaldia be egin dautsoe (Zar saridunak be bai, len esan ez badogu be), beti joaten izan da joko-aldien asierako Angelus otoitza zuzentzera orretarako eleizako organu jotea meza-erdian itzita be bai.

Lan ederra egin dau eta egiten dau errian talde onek. Ospetsuak dira pelota-munduan Mungian egiten diran joko-aldiak, batez San Antontxu egunean eta erriko Jaietan.



VIII. ABESBATZA



Aurrerago be esan dogu eta badakigu Jose Mari beti izan dala eres edo musikazalea. Txikitán Elorrión ume abeslaria izan zan, txikitán asita joten eban amak bere esku itzi eban pianua, eresa ikasteko bizikletan joaten zan Elorriotik Abadiñora, seminarioan organulari ona izan zan ainbeste urtetan.

Mungiako erria be musikazalea da, musika ona entzutea maite dau, bai eleizan eta bai kanpoan.

Gauza bi orreek kontuan artu ezkero, berez dator gure Jose Mari ain langilea dan ezkero, Mungiara etorri eta beingoan asi zala parrokoiko korua eratzen. Eta urterik urtera koru au obetuz joan zan eta ainbeste tokitan emon dauz abesti-aldiak. Izen batzuk aitatzekotan, gogorartu daigun San Vicente de la Barquera edo ainbeste urtetan Begoñan izan dauzan ekinaldiak. Ain onak izan ziran azkenengo oneek ze, Begoñako Amari burestuna ipini jakonetik eungarren urtea eldu zanean, gure koru edo abesbatz onetako abeslariak aukeratu ebezan abesteko.

Ganera, asko be asko dira toki askotan lortu dabezan sariak.

Asieran Jose Mari'k parrokirako sortu eban koru au, baina koruak ezin bete izan ebazan parrokiko zereginak, esatarako ileta guzietan abestea. Ainbat urtetan bete eban zeregin ori, baina azkenean batzutan etorten ziran beste batzutan ez eta, guztiak korua nai eben lez, kezkak sortu ziran eta iletetan abeste ori itzi egin eban.

Gaur egun orfeoi edo abesbatz benetan ona da. Jose Marik maitasun aundia dausko orfeoi oneri. Urte askotan bera izan zan zuzendari eta gero beste zuzendari batzuk agertu dira, azkenengo Anjel Enzuntza dala. Esku onetan dago ba orfeoia eta Iuzaro jarraituko dauala uste dogu erriak poztutenean eta eziten. Antxinatik esana da eresak piztiak be ezi egiten dauzala.

Esan dogu korua Jose Mari'k maite dauala, baina esan-bearrekoa da abesleak, orfeoi osoak, benetako maitasuna dautsola Jose Mariri. Omenaldiak egin dautsoz eta Santa Zezilia eguneko afarira beti izan da deitua eta Mungian bizi izan dan artean beti joan da.

Eta erriari begiratu ezkerro, argi dago esker onez eta maitasunez ikusten dauala, bai Jose Mari eta bai abesbatza.



IX. ALKARTASUNA / CONCORDIA

Erri-agintaritza edo demokrazia gure artera eterri artean, Jose Mariren Mungiako bizitzan 1952tik 1975ra, ogeita iru urtean, ezin zeitekean, asieran beintzat, aldizkaririk argitaratu euskeraz, eta erderaz idazteko be, irarkolara, inprintara eroan baino len "Informacion y Turismo" Va eroan bear izaten ziran idazki jatorrak eta an onartuak izan. Orregaitik aldizkari eta liburu gitxi argitaratzen zan.

Baina bearrezkoak ziran eta orretarako be agertu zan bide bat: Parrokiko aldizkaria sortzea izan zan, naizta onek be ofizina orretatik igaro-bearra izan.

Ez dakit ziur nondik sortu zan guraria, ala Jose Marik berak asmatua zan ala erri-tarren batzuk eskatu eben ala Mungialdeko abade-taldearen jokabidea zan, baina bai 44 urte dirala aldizkaria atera zala eta ordutik ona 411 ileroko aldizkari-zenbaki atera dirala.

Or daukagu ba gure Jose Mari aldizkari baten zuzendari, idazkiak artu eta euren artean onenak aukeratzen, erriko erakundeai idazlanak eskatzen, idazkerako okerrak zuzentzen, gobernuen idazgotik igaro eta dana irarkolara eroaten. Gure aldizkaria bere bidean dago.

Zein izkuntzatan? Euskeraz ala erderaz? Lenengo urteetan euskeraz argitaratzea ezina zan eta Jose Marik al ebana egin eban: erderaz argitaratu. Eta izena be erderaz ezarri eutsan "Concordia". Izen onek erriaren erdiko kalea gogoratzen eban, baina baita erria eta uria batu ziraneko ituna.

"Censura" aldetik ez egoan eragozpen andirik, geuk lenengo "autozensura" egiten gendualako.

Zein izan aldizkari onen elburua? Lenengo parrokiaren abotsa etxe guztietaera eldu daitela, batez be urrinduen etxeetara, gero erriak bere buruaren barriak izan dagizala eta irugarren erritarrentzat osokunza-bide bat izan daitela.

Lenengo zabalkundea egin bear izan zan eta au Mungiako abadeen kontura geratu zan. Jose Mari bera lenengo eta beste abadeak ondoren, etxerik etxe joan ziran arpidetzak lortzen. Ondo artuak izan ziran etxeetan eta 1.500 arpidedun lortu ebezan.

Gero banaketa eta kobraketa egiteko kale bakoitzera bat aurkitu bear zan. Benetan Ian ederra egin dabe eta egiten dabe urte oneetan banatzaile oneek.

Izan ditu urte gatzak bere edestian aldizkari onek, batez be abadeen aldakuntzak izan dirala-ta, baina aurrera jarraitzen dau: Jose Marirenurrengoneek izan dira zuzendari: Agustin Aurrekoetxea, idazten nagon au eta gaur Martin Aranbarri, parroko barria.

Ekonomi-arloan inoz ez dau izan larritasunik, beti amaitu dauz urteak zorrak ordaintu eta gainki edo "Superavit"egaz. Irarkola, imprenta, ordaindu ezkero, beste guztiak doan egiten dabe lan.

1.988.urte inguruan, izena euskerazkoa izan bear ebala uste izanik lengo "CONCORDIAVen aurretik, "ALKARTASUNA" ipini geuntson.

Or daukagu ba, gure ALKARTASUNA-CONCORDIA, Jose Mariren lana, 44n. urtean, Bizkaiko Parroki-Aldizkari guztien artean dekanoa dana eta sendo.

J086 Ilarfa Arrogui f S^cerdote
en Irun^ufa

ACTIVIDADES EN LA PARROQUIA DE SAN PEDRO,
DURANTE EL TIEMPO QUE LLEVO EN MUNGIA;
DESDE EL AÑO DE 1952.

Creación del Coro Mixto de Cantores, primero con el nombre de Orfeón y después con el de Coral de Mungia. Típles para las misas cantadas de los domingos. Clase de solfeo para ellos. Monaguillos. Responsable de la Juventud parroquial. Acción Católica de Jóvenes: la JJC, la JOC, Aspirantes de A.C. Retiros mensuales. Gatzedi Eguna. Acción Católica de Hombres: Independiente, Hoac, Cursillistas, Retiros mensuales. Catequesis: Delegado Comarcal. Catequista en la catequesis parroquial y profesor de religión en el Instituto y en las Escuelas de E.G.B. Certámenes Catequísticos. Cursillos Prematrimoniales, Cursillos Prelitúteros. Grupos de Baile, Peña Peñotazale DANA BAT. Cine Infantil. Delegado Comarcal de Misiones, Equipo sacerdotal misionero del Sector. Compromiso Misionero de ayuda a los misioneros de Manabí, Junta Parroquial de Misiones. Director de la Hoja Parroquial CONCORDIA durante 25 años. Asociación Católica de Padres de Familia. Escuela de Padres. Visita a las casas de las familias Suscriptores de la Hoja CONCORDIA. Colaborador para la creación de una Aula de Tercera Edad.

Septiembre de 1982 .

X. SUKALKI-EGUNA

Bakoitzaren bizitzan balio-andia dauka bizi-ikasi edo esperientziak. Geu konturatzten gara gure bizitza edur-bola baten antzekoa dala eta urteak biraka zelan joan, alan doala, aberatsagoa izaten gauzak egiteko daukagun trebetasuna.

Ori balioko gauzea izan da Jose Mariren abadetzen be. Berangon ikusi eta egin ebezan lanak gertakuntza izan ziran Mungian egiteko eukazenetarako. Onen adibide bat. sukalki eguna da.

Berangon jaien giroan sarketa, txapelketa edo leiaketa eder bat egiten zan: Pil-pil erako makalauarena. Asko sartzen ziran sarketa orretara eta erritarrak egun pozgarria igaroten eben. Gaur be orretan jarraitzen dabe.

Mungian jaietarako zeozer gertaztea nai eban Jose Marik eta Berangoko sarketa bururatzen jakon, baina gauza bardina ezin egin, bardin bi orreek alkarren kaltegari izan zeitekezalako. Orregaitik gauzea apur bat aldatu egin eban, pil-pil erako makalaua izan bearrean zergaitik ez aragia?

Esan eta egin. Talde bategaz alkartuta or 1.960. urte inguruan jaietarako Sukalki eguna gertatu eban, sarketa lez.

Arrezkerio urte guztietan, Kepa Deunaren jaien azkenerantza, ospatzen da egun ori.

Egun pozgarria izaten da, gure jendea jateko orduan atzean geratzeko ez dalaiko eta adiskide-taldeak egun eder bat igaroteko aukerea izaten dalako. 400 baino talde geiago izaten dira aspaldiko urteetan agertzen diranak. Baino egin daigun edesti apur bat.

Lenengo urteetan Torrebillela ondoko zugaztian egiten zan. Ez egoan ibiltoki eder au gaur lez gertatuta, baina egin leikean or orrelako sarketa bat.

Eragozpenak agintarien aldetik agertu ziran. Sarrera bat baino ez eukan zugaztiak eta sarrera orren gainean arku bat ipini eben eta sartzen ziran guztiak Espanako Banderearen aspitik igaro bear eben. Eta nai ez ori! Zer egin? Beste zubi bat egin Andra Maria'ren eleiza-ondoan.

Ori ta guzti be izan ziran iztiluak eta inoz danbada edo tiroak izateko arriskua eta "zuek bota tiroak eta erantzukizuna neurea izango da" esan eban agintari batek.

Uurrengo urteetan eta gaur arte Uriguen zugaztian egiten da Sukalki Eguna. Toki ederra eta gainera baekuan lendik zerikusia Jose Mariagaz eta bere taldeaka.

Agintariak saldu nai izan eben landa eder ori etxeak egiteko eta Jose Mari ta bere talde batek idazki bat egin eben, toki ori etxeak egiteko barik zugazti lez zaindu bear zala eskatuz eta lortu egin eben. Zelai eder orretan egiten da ba Sukalki Eguna.

Erriko oitura egin da egun au, eta gaur orretan jarraitzen dau, 40 urte inguruko asmabideari jarraituz.



*Dantza taldeen
asikeretan bere
euki eban bere
eragina Jose
Mariak*

XI. EZKONDU-AURREKO IKASTAROAK

Zalantza barik, ezkondu aurrean gertakuntza bat bear da, bai erri aldetik, eta bai Eleiza aldetik.



Jose Maria bere familiagaz

Erri aldetik, sendia erriaren oinarria dalako, eta eleiz aldetik, ezkontzen diranak artzen dabentz arduraz andia artzeko naikoa ez dalako umetan artu eben katekesi-aldia. Gainera ezkontzera etorten diran asko umetik arrezkero Eleizatik urrin bizi izan diralako. Bear-izan ori argi ikusten eban Jose Marik.

Abade-etxe zarraren barrenean gela bi egozan, katekesirako edo beste ekintza batzutarako. Sartzen garala ezker-aldea egoan bat eta or irakasten eutsen Paulin Solozabal abadeak gaztetxuai eres edo musikea, txistua, abestiak eta olakoak. Eskoi-aldean egoan beste gela zabal bat edateko toki ta guzti. Toki onetan egiten ziran ezkondu aurreko ikastaroak.

Bost egun jarraian izaten zan ikastaroa beste leku batzutan, baina Jose Marik naia-go izan eban igandeetan egin, etorteko erreztasuna izan dagien ezkon-gaiak.

Bost igande izaten ziran. Lenengoan sinismenaren arazoa aztertzen zan, bigarrenean lege-gizon batek egiten eban berba, irugarrenean osagile batek, laugarrenean ezkondu-bikote batek eta bosgarrenean lenengo eguneko abadeak berak, ezkontzako jokabide zuzenaren arauak agertzeko.

Eunda asko bikote igaro ziran ikastaro oneetatik eta an ikasia aldean daroe. Eta batez be alkartze oneetan giro on bat sortzen zan sarritan eta ori be gauza ona da: alkar-izketarako tokiak ez dira gure artean lar ugariak izaten-eta.

Gaur eskontzea larri-une aundi baten dago, bai erri aldetik eta bai eleiz-giroan, baina an izan ziran bikote asko ez dago entzuna aztuta.

Ikastaro orreek eratzeko, beti lez, Jose Marik Sendiaren taldea sortu eban eta gaur be jarraitzen dau. Gomutaki lez, an dago alboko ate txikitik sartu eta eskumara agiritegi bat. Ez da ezertarako erabilten, baina gomutakia da.

Zer egiten ete dau gaur Sendi-talde onek? Gitxienez urtean bein, urrilean, zidarezko ta urrezko eztegua gertatu. Eleizan lenengo eta jatetxeen gero. Ori be alkarizketarako toki bat izaten da.

